



Universidad Euskal Herriko  
del País Vasco Unibertsitatea

ESCUELA UNIVERSITARIA DE MAGISTERIO DE BILBAO  
BILBOKO IRAKASLEEN UNIBERTSITATE ESKOLA

Gradu Amaierako Lana

# GIZARTE HEZITZAILEEN GENERO ESTEREOTIPOAK UME ETA NERABEEN IKUSPUNTUTIK

## Oinarrizko Programa Orokorreko Bizkaiko harrera etxe baten kasua

---

GRADU AMAIERAKO LANA  
GIZARTE HEZKUNTZAKO GRADUA  
2016/2017 IKASTURTEA

**Egilea:** Beñat Elias Landa

**Zuzendaria:** Gorka Etxebarria Elordui

Leioan, 2017ko maiatzaren 30ean

*EGILEAREN ONIRITZIA*

## AURKIBIDEA

1. Sarrera .....	5
2. Esparru teorikoa eta kontzeptuala: aurrekariak eta egungo egoera .....	5
2.1. Sozializazio prozesuaren garrantzia lehenengo urteetan: lehenengo eta bigarren sozializazioa .....	6
2.1.1 Lehenengo gizarteratzea .....	7
2.1.2 Bigarren gizarteratzea .....	8
2.2. Generoaren eraikuntza soziala eta estereotipoak .....	8
2.3. Genero hierarkizazioa eta atxikitutako estereotipoak .....	10
2.3.1. Agresibitatea .....	11
2.3.2. Soziabilitatea.....	11
2.3.3. Enpatia .....	12
2.3.4. Laguntzeko prestutasuna.....	12
2.3.5. Lidergoa .....	13
2.4. Ikerketaren justifikazioa .....	13
3. Metodologia .....	14
3. 1. Helburuak .....	14
3. 2. Hipotesiak .....	14
3. 3. Parte-hartzaileak.....	15
3. 4. Tresna: Eztabaida taldeak .....	15
3. 5. Prozedura .....	16
3. 6. Datuen tratamendua .....	17
4. Emaidzak.....	18
4.1. 7-12 urte bitarteko adingabekoak .....	18
4.2. 12-17 urte bitarteko adingabekoak .....	21
5. Ondorioak.....	24
6. Ikerketaren mugak eta etorkizuneko ikerketak .....	26
7. Erreferentzia bibliografikoak .....	27

## ERANSKINAK

1. Eranskina. Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskolako Gizarte Hezkuntza graduako matrikulazio kopurua ikasturteka.
2. Eranskina. Euskal AEko gizarte zerbitzuetako pertsonal okupatua, lurralde, titulartasun eta prestakuntzaren arabera, sexuari jarraiki. 2014
3. Eranskina. Parte-hartzaileen datuak.
4. Eranskina. Informaturiko baimena.
5. Eranskina. Eztabaida taldeen denboralizazioa.
6. Eranskina. Eztabaida taldeen fitxa.

# **GIZARTE HEZITZAILEEN GENERO ESTEREOTIPOAK UME ETA NERABEEN IKUSPUNTUTIK**

**Oinarrizko Programa Orokorreko Bizkaiko harrera etxe baten kasua**

**Beñat Elias Landa**

UPV/EHU

Ikerketa honen helburua Oinarrizko Programa Orokorreko harrera etxe bateko adingabekoek haien gizarte hezitzaileengan antzematen dituzten genero estereotipoen pertzepzioa identifikatzea da. Genero estereotipoen pertzepzioa harrera etxeke adingabekoen adinaren eta sexuaren arabera aztertu da. Horretarako izaera kualitatiboko ikerketa bat diseinatu da eztabaida taldeen teknika erabiliz. 7 eta 17 urte bitarteko hamar umek zein nerabek parte hartu dute ikerketan eta agresibitatea, laguntzeko prestutasuna, empatia, soziabilitatea eta lidergoaren estereotipoak aztertu dira. Emaitzek adierazi dute adingabeko guztiek antzematen dituztela genero rola euren gizarte hezitzaileengan eta ondorioztatu izan da ume bakoitzaren adinaren arabera pertzepzio ezberdinak antzematen direla, baina ez aldiz sexuari dagokiola.

*Generoa, Gizarte Hezkuntza, estereotipoak, gizarte hezitzaileak, gizarteratzea*

El objetivo de esta investigación se basa en la identificación de los estereotipos de género que los/as menores de un hogar de acogida de la Red Básica tienen sobre sus educadores sociales. La percepción de los estereotipos de género han sido analizados según la edad y el sexo de los/as menores. Para ello se ha diseñado una investigación de carácter cualitativo habiendo utilizado como técnica los grupos de discusión. Los/as participantes han sido menores de entre 7 y 17 años y se han analizado los siguientes estereotipos: la agresividad, la conducta de ayuda, la empatía, la sociabilidad y el liderazgo. Los resultados indican que todos/as los/as participantes identifican los estereotipos de género de sus educadores sociales. Además, dependiendo de la edad estas percepciones varían considerablemente, no en cambio si se analiza por sexo.

*Género, Educación Social, estereotipos, educadores sociales, socialización*

The objective of this research is based on the identification of gender stereotypes that underages of a shelter house of the Basic Network have over their social educators. The reception of gender stereotypes has been analyzed according to the age and sex of the children and teenagers. For this purpose a research of qualitative character has been designed having used the technique of discussion groups, Participants were aged between 7 and 17 years and the following stereotypes were analyzed: aggressiveness, help behavior, empathy, sociability and leadership. The results indicate that all participants identify the gender stereotypes of their social educators. In addition, depending on the age these perceptions vary considerably, but they don't when sex is analyzed.

*Gender, Social Education, stereotypes, social educators, socialization*


## **1. Sarrera**

Gizarteak azken hamarkadetan parekidetasunerantz emandako urratsak esanguratsuak diren arren, gaur egun oraindik ere emakumezkoek eta gizonezkoek bizi duten gizarteratze prozesua oso ezberdina da. Ezaugarri sozial eta kultural zehatz batzuen ondorioz, gizonezko eta emakumezkoek sozializazio prozesu ezberdinak bizi dituzte, eta ondorio hau jendarteko esparru ezberdinetara hedatzen da. Gizarte Hezkuntzaren kasuan, arlo akademiko zein profesionalean, emakumezkoak dira gizarte hezitzaileen gehiengoa. Azpimarratzekoa da, hezkuntzako profesional hauek, eta adingabekoeekin lan egiten dutenek batez ere, ume eta nerabe hauen gizarteratze prozesuko figura garrantzitsuak direla. Hori horrela, hezkuntza prozesuetako parte diren profesionalen talde hauetan genero aniztasuna eta parekidetasuna bermatzea ezinbestekoa da.

Gauzak horrela, Gradu Amaierako Lan hau, Gizarte Hezkuntza eta Generoa gaiaren baitan kokatzen da, eta Bizkaiko Oinarrizko Programa Orokorreko harrera etxe bateko ume eta nerabeen ikuspuntutik, bertako gizarte hezitzaileen genero estereotipoen identifikazioa aztertuko da. Lana beraz, ikerketan oinarrituko da eta izaera kualitatiboko eztabaida taldeen teknika erabiliko da ikerketa burutzeko. Modu honetan kasu praktiko baten analisia egin ahalko da eta ume zein nerabeek dituzten pertzepzioak aztertu. Aurreikusten da, genero rol markatuak egongo direla hezitzaileen artean. Gainera, ikerketak generoaren hausnarketarako aukera emango du, etorkizuneko formakuntza eta planen zein protokoloen sorrerari dagokiola, genero berdintasuna harrera etxeetan lantzeko.

## **2. Esparru teorikoa eta kontzeptuala: aurrekariak eta egungo egoera**

Gizarte Hezkuntzaz ari garenean emakumezkoak gehiengoa diren esku-hartze esparru batez ari gara. Izan ere, arlo akademiko zein profesionaleko datuek emakume eta gizon hezitzaile kopuruaren artean ematen den desoreka nabarmena aurkezten dute. Esparru akademikoko datuei erreparatuz gero, Bilboko Irakasleen Unibertsitateko Eskolako (EHU) Gizarte Hezkuntzako Graduko matrikulazioetan (ikus 1.Eranskina), emakume eta gizonezkoen kopuruaren arteko alde nabarmena antzematen da (Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskola EHU, 2017). Gizonezkoen matrikulazioak azken urteetan %20 inguruan egon dira eta emakumezko matrikulazioak aldiz, % 80 inguruan.



1. Grafikoa: Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskolako Gizarte Hezkuntza graduko matrikulazio kopurua ikasturteka.

Beste alde batetik, Eustatek (2014) EAEko Gizarte Zerbitzuetako langileen inguruan jasotako datuen arabera (ikus 2. Eranskina), ez da ikas eremuan soilik ematen den egoera, baizik eta lan mundura estrapolatzen den errealitatea ere. Hain zuzen ere, Gizarte Zerbitzuetako langileen %31,69a gizonezkoa da eta %68,31 emakumezkoa. Hezitzaile eta irakasleen kasuan zentratuz, %28,04a gizonezkoa da eta %71,95a emakumezkoa.



2. Grafikoa: EAEko Gizarte Zerbitzuetako langile kopurua sexuaren arabera banaturik



3. Grafikoa: EAEko Hezitzaile eta Irakasle kopurua sexuaren arabera banaturik

## 2.1. Sozializazio prozesuaren garrantzia lehenengo urteetan: lehenengo eta bigarren sozializazioa

Gaur egungo datuek agerian uzten dute emakumezkoen eremua dela gizarte hezitzaileena. Ez da kasualitate hutsa, ezta soilik Gizarte Hezkuntzako esparruari eragiten dion errealitatea ere, izan ere, dimentsio sakonagoetan jatorria eta eragina duen fenomeno

batez ari gara: gizarteratze edo sozializazio prozesua. Martinen (2011) esanetan, gizarteratzea belaunaldi berriak gizartean txertatzeko prozesua da.

Vigotskyk (1987), bere aldetik, norbanakoa psikologikoki garatzeko beste pertsonekin elkarrekintzan egotea ezinbestekotzat jotzen du. Hau da, sozializazio prozesuak pertsonen garapenean eragin erabakigarria izango du eta modu horretan, besteen bitartez gu geu bihurtzen gara.

Emile Durkheimen (1993) Bi Kontzientzien Teoriaren bidez azaldu zuen gizarteratze prozesua (Imaz, 2012). Teoria honek bi kontzientzia mota desberdindu zituen: alde batetik, *kontzientzia indibiduala*, zeina gizaki bakoitzaren unibertso pribatua den, eta beste alde batetik, *kontzientzia soziala* gizartean nagusi diren pentsatzeko, izateko eta sentitzeko moduek osatzen dutena. Sozializazio-prozesuak, hortaz, pertsona indibidualek kontzientzia kolektibo hori ezagutzea, ikastea, onartzea, barneratzea eta praktikatzeari dakar.

Hydek (1995) beste ikuspuntu batetik definitu zuen gizarteratzea, gizarteak norbanako bakoitzaren inguruan espero duena transmititzeko prozesu gisa, hain zuzen ere. Jaiotze unetik, generoa, klase soziala, arraza, erlijioa ... moduko ezaugarriek gizarteak norbanakotik espero duena baldintzatzen dute eta sinesmen horien transmisioan oinarritzen dute gizarteratzea.

Etengabe ematen den prozesua da, izan ere, etapa ezberdinetatik pasa arren, jaiotzen garen unean hasi eta bizi osoan zehar ematen da gizarteratzea (Giddens, 2001). Prozesu honen baitan, bi gizarteratze maila nagusi bereizten dira: lehenengo gizarteratzea eta bigarrena (Berger eta Luckmann, 1967).

### ***2.1.1 Lehenengo gizarteratzea***

Haurtzaroan ematen da, hau da, 0-3 urte bitartean, eta etaparik garrantzitsuena delarik, bertan munduaren lehen bertsio filtratua aurkezten da (Imaz, 2012). Berger eta Luckmannen hitzetan (1967, 164.or.), “lehenengo gizarteratzea haurtzaroan ematen da eta horren bitartez bilakatzen da haurra gizarteko kide”. Testuinguru kulturalarekin izandako lehen harremana familiaren inplikazio eta ikuspuntuaren bitartez ematen da. Umearentzat hori da mundu posible bakarra, eta ondorioz, onena. Imazek (2012, 64.or.) azaldu bezala “lehenengo gizarteratzean, errepikapenaren bidez, umeak gizarte horretako arauak ikasten eta barneratzen ditu, eta arau multzo bat ikasiz eta barneratuz, bere gizarteko kulturari txertatzen da”.

Aipatzekoa da, hizkuntzak funtsezko papera duela gizarteratzean, izan ere, haurra inguratzen duen testuinguru sozialari zentzua emateko tresna da (Galindo 1991).

### **2.1.2 Bigarren gizarteratzea**

Bigarren gizarteratzea, aldiz, umea elementu ezberdinekin elkarreraginean jartzerako orduan hasten da, hala nola, irakasleekin, klase-kideekin, komunikabideekin, instituzio laboral, legal eta politikoen ... Berger eta Luckmanek (1967, 164.or.) honela definitzen dute: “bigarren gizarteratzea dagoeneko gizarteratuta dagoen indibiduoak aurrera eramaten duen edozein prozesu da, zeinak norbanakoa gizarteko sektore objektibo berrietan txertatzea duen helburu”. Garai honetan, mundu mugatuagoak eta espezializatuagoak ikasten dira, hau da, ezagutza zehatzagoak (Imaz, 2012).

## **2.2. Generoaren eraikuntza soziala eta estereotipoak**

Gizarteratze prozesuak hainbat faktoretan du eragina, besteak beste, generoaren eraikuntza sozialean. Gizarteak generoaren baitan egiten duen eraikuntza prozesu honetaz aritzerakoan, oinarritzko bi kontzeptu bereizi behar dira: sexua eta generoa. Sexuak gizakion alderdi biologikoari soilik egiten dio erreferentzia, izan ere, sexualitate eta erreproduzioari loturiko ezaugarriak dira sexuak determinatzen dituenak (Unger, 1994). Bi sexu desberdintzen dira: gizonezkoa eta emakumezkoa. Generoa, aldiz, aldagai soziala da, hain zuzen, gizarteratze-harremanen eta elkarrekintzen bitartez eraikitzen joan da eta ondorioz, sozializazio prozesu ezberdinak sortzen dira emakume eta gizonen artean (Correll, Thébaud eta Bernard, 2007). Genero-desberdintasun hauek sozialki eratutako patroikulturalen ondorio dira (Sagot, 1995). Generoa beraz, “fisiologikoak ez diren gizon eta emakumeen ezaugarri kulturalak dira (...). Bi pertsona talde hauek bereizten dituen etiketa soziala da” (Unger, 1979, 1086 or.). Genero identitate maskulinoa eta femeninoa desberdintzen dira eta Giddensek (1994, 196 or.) esan bezala, “generoa gizon eta emakumeen arteko ezberdintasun psikologiko, kultural eta sozialen multzoa da”.

Gizarteratze prozesuak, beste hainbat eraginen artean, sexuari atxikitutako genero eraikuntza prozesuak garatzen ditu, eta kasu askotan gizonezko eta emakumezkoen gizarteratze prozesuek ezberdintasunak aurkezten dituzte. Sozializazio agenteen bidez, (familia, eskola, komunikabideak, lagunak ... ) genero identitatea eraikiz doa, hain zuzen, genero bakoitzari loturiko eredu kognitibo, kode axiologiko eta moral, jarrera, jokaera eta arau estereotipatuak ezarriz (Walker eta Barton, 1983). Genero jokabidea, hortaz, ikasia da



eta ikaskuntza sozialaren teoriaren arabera “gizakiaren jokaera gehienak ereduaren behaketaren bitartez ikasten dira” (Bandura, 1987, 68 or). Walter Mischelek (1972) generoen ikaskuntza prozesua ikertu eta azaldu zuen, prozesu hau hiru etapa nagusitan sailkatuz: lehenik, norbanakoak genero rolak bereizten ikasten du (*bereizkeria*); ondoren, ikasitako egoera berrietara orokortzen du (*orokortzea*); eta, azkenik, barneraturiko jokaerak martxan jartzen ditu (*praktika*).

Generoan ematen den eraikuntza sozialak, genero bakoitzari identitate, ezaugarri eta izaera jakin bat atxikitzen dio, eta ezaugarri hauek genero estereotipoetan antzeman daitezke, bestek beste. Estereotipoak talde sozial bateko norbanakoen inguruko sinesmenak dira (Mackie, 1973). Deaux eta Lewisek (1984) lau elementu nagusi identifikatu zituzten estereotipoetan: nortasunaren ezaugarriak, generoari loturiko jokabideak, lanbidea, eta itxura fisikoa. Generoari lotutako estereotipoek emakumeen eta gizonezkoen inguruko ezaugarrien inguruko ezagutza bateratu batean barneratzen diren egitura kognitiboak integratzen dituzte (Ashmore eta Del Boca, 1981). Gainera, estereotipoak, kategoria bati atxikitutako (kasu honetan genero kategoriari) sinesmen puztuak dira, eta euren helburua, kategoria horrekiko dugun jokaera justifikatzea edo arrazionalizatzea da (Allport, 1954; Colom, 1994). Hala ere, norbanakoaren inguruan informazio gehiago jasotzen den heinean, hau da, gehiago ezagutzen denean, generoak influentzia gutxiago du eta bere eragina inguruko pentsamenduan murrizten da (Deux eta Lewis, 1984).

Estereotipoek eredu baten pean homogeneousatzeko tendentzia duten heinean, subjektuaren izaera propioa garatzea galarazten dute (Jayme eta Sau, 2004). Sozializazioa estereotipoen erreprodukzio parametroetan emateak ondorio negatiboak izan ditzake. Hain zuzen ere, Poal Marcetek (1993) sozializazio prozesuan ematen diren hiru porrotak identifikatu zituen. Lehen, atsekabea da, muturreko egoerara eramateko tendentzia gailentzen delako, izan ere, neurritz kanpo balioztatzeak estresa eta opresioa sortzen du eta gutxiesteak, aldiz, norbanakoaren garapena asko mugatzen du. Bigarrena, sozializazioak ez duela beti bere helburua lortzen, errealitateak behin eta berriz agerian uzten baitu sarritan ez direla sozializazio bereziaren estereotipoak betetzen. Hirugarrena eta azkena, norbanakoaren auto-errealizatorako gaitasuna mugatzen duela da, eta beraz, ez dela prozesu egokigarria.

Arestian aipaturiko bi generoak ez dira parekidetasunean bizi, eta honek gizon eta emakumeen arteko zapalkuntza elikatzen du. Victoria Sauk (1988, 1989) azaldu bezala, generoak hierarkizaturik daude, genero dominante (maskulinoa) eta genero dominatua

(femeninoa) desberdintzen direlarik. Adams eta Landers (1978), halaber, dominazioa, pertsona batek bestearen nahiekiko erresistentzia ahaleginak egitea, modu horretan subjektuan eragin ahal izateko zela adierazi zuten. Sailkapen hau ulertzeko gako nagusiak Ferrer eta Bosch (2013), Cabral eta García (2001) eta Poalek (1993) azalduko sozializazio bereziaren oinarrietan aurkitzen dira. Alde batetik, generoaren arabera sozializazio prozesu bereziaren baitan, gizonezkoaren gizarteratzea ematen da. Izan ere, gizon jaio izanak, sozializazioaren bitartez ezaugarri zehatz batzuk ezarri eta honi loturiko izaera garatzea dakar:

“Gizonezkoek produkzioarako eta esparru publikoan jarduteko gizarteratu zaie, eta ondorioz, eremu horretan arrakasta lortzeko eta bertatik autoestimua jasotzeko hezi zaie. Alde afektiboa erreprimitu bitartean, anbizioa, gaitasunak eta askatasuna indartu dira, norberaren promozioa erraztuz; babes gutxi eta estimulu ugari eman zaie eta ekintzara, eremu makro-sozialera, independentziara eta kanpoko mundura bideratuak izan dira” (Ferrer eta Bosch, 2013, 107 or.).

Emakume jaiotzeak aldiz, gizarteratzean bestelako izaera eta papera garatzearekin harremanetik dago:

“Emakumezkoak, aldiz, erreprodukzioarako eta esparru pribatuan aritzeko gizarteratu zaie. Hortaz, euren artean, eremu pribatu horretan arrakastatsua izatea espero izan da, esparru hori izanik autoestimua iturri nagusia. Esfera afektiboa indartu da eta aldi berean anbizioa, gaitasunak eta askatasuna erreprimitu; estimulu gutxi eta babes ugari jaso izan dute, eta intimitatera, eremu mikro-sozialera, dependentziara eta barruko mundura bideratuak izan dira” (Ferrer eta Bosch, 2013, 107 or.).

### **2.3. Genero hierarkizazioa eta atxikitutako estereotipoak**

Generoen hierarkizazioa gizonezko zein emakumezkoek atxikitzen zaizkien rol eta estereotipo zehatzetan antzematen dela ikertua izan da. Aditu ezberdinek (Cabral eta García, 2001; Eagly eta Crowley, 1986; Eagly eta Johnson, 1990; Eisenberg eta Lennon, 1983; Eysenck, 1981; Ferrer eta Bosch 2013; Jayme eta Sau, 2004; Poal, 1993; Prime, Carter eta Welbourne, 2009; Retuertok, 2004) buruturiko lanen bitartez, norbanakoen identitatea osatzen duten bost estereotipo nagusi identifikatu dituzte, hala nola: agresibitatea, soziabilitatea, empatia, laguntzeko prestutasuna eta lidergoa. Estereotipo hauetako bakoitzari dagokiola emakumezkoek zein gizonezkoek ezaugarri zehatz batzuk atxikitzen zaizkio generoen arabera banaketa argia sortuz.

### **2.3.1. Agresibitatea**

Teoria biologistak agresibitatea sexu bakoitzaren berezkoak diren ezaugarri fisiologikoekin lotzen du, testosteronarekin hain zuzen. Eysenckek (1981) azpimarratu bezala jokabide agresiboa sistema endokrino-sexualarekin dago harremanduta. Aitzitik, Hyde eta Schuckek (1977) diotenaren arabera, agresibitatearen alorrean aspektu biologikoez eragin baxua dute eta eragin kulturalaren ondorioz ematen da gehien bat bi generoen arteko desoreka.

Arlo fisiko, berbal eta fantasiakoari dagokionean gizonezkoek emakumezkoek baino agresibitate maila handiagoa dutela adierazi zuten Maccoby eta Jaclinek (1974). Probokazioen aurrean erreakzio ezberdinak nabarmentzen dira: gizonezkoek haserrealdia agresibitatearekin erakusten duten bitartean, emakumezkoek antsietatea sentitu ohi dute (Hyde, 1995). Honek lotura handia du bi genero ezberdinetako norbanakoek gizartean jarduteko jokabide orokorrarekin, hots, gizonezkoak aktiboagoak dira eta emakumezkoak, berriz, pasiboagoak. Horrez gain, emakumezkoak izaera prosozialeko eraso berbala -errieta egin, zuzenketak egin...- erabili ohi dute, eta gizonezkoek antisoziala- teknika suntsitzaileak, kontaktu fisikoari lotuak-, (Sears, 1975).

### **2.3.2. Soziabilitatea**

Emakumezkoaren jokabidearen ezaugarrien artean, taldean lan egiteko gaitasuna aurkezten da (Prime, Carter eta Welbourne, 2009). Gizonezkoen kasuan aldiz, indibidualismoa (norberaren promozioa), independentzia (askatasuna) eta lehiakortasuna (anbizioa) bezalako rolak nabarmenagoak dira (Cabral eta García, 2001; Ferrer eta Bosch, 2013; Poal, 1993). Hala ere, gizartean bizi diren heinean, behartuta daude taldean jardutera. Horrek aipatutako indibidualismoa taldearen mesedeetarako praktikan jartzea exijitzen du, *indibidualismoa vs. kooperazioa* aferari helduz (Buss eta Plomin, 1975).

Ildo horretatik, indibidualistagoak diren gizonak antisozialagoak dira; aldiz, taldea indibiduoaren aurretik jartzen dutenek, eskuzabalagoak direnek, gizartekoiagoak izateko joera dute (Buss eta Plomin, 1975).

Haatik, eta aurrerago aipatu bezala, rol femenino tradizionala lehiaketara bideratuta egon baino, dependentziara eta pertsona-arteke harremanak garatzera dago bideratuta:

“afektiboagoak, maitagarriagoak eta ulerkorragoak” (Buss eta Plomin, 1975, 223 or.) izatera hain zuzen ere.

### ***2.3.3. Enpatia***

Enpatia ondokoak jasaten dituen emozioak sentitzeko gaitasuna litzateke, hau da, emozionalki besteren lekuan jartzeko gaitasuna (Hyde, 1995). Richaud de Minziren (2008) esanetan, prozesu afektiboetako elementu zentrala da enpatia eta beste pertsona baten sentimenduen erantzun afektiboari dagokio.

Einsenberg eta Lennon (1983) psikologoek ikerketa ezberdinen bitartez emakumezkoak enpatikoagoak direla baieztatu zuten. Retuertok (2004) eginiko ikerketaren arabera, gizon eta emakumeak beste pertsona baten egoera ulertu eta bere lekuan jartzeko antzeko gaitasun kognitiboak dituzten arren, emakumezkoek erantzun afektiboagoak eta gizonezkoek baino jarrera enpatikokoak izaten dituztela ondorioztatu zuen. Izan ere, emakumezkoen orientazio afektibo prosozialaren ondorioz, besteen lekuan jartzeko tendentzia nabaria den bitartean, gizonezkoetan ekintza instrumentalak izaten dira ohikoagoak (Retuerto, 2004).

Azkenik, ikerketa ezberdinek (Singh-Manoux, 2000; Sobral, Romero, Luengo eta Marzoa, 2000) adierazi bezala, enpatia eta agresibitatearen arteko lotura estua da. Gizabanako enpatikoak ez dira hain agresiboak eta sentsibilitate emozional handiagoa dute jokaera agresibo batek izan dezaken ondorio negatiboak antzematen ditu. Hortaz, enpatia positiboki harremandurik dago jokabide prosozialarekin, emakumeetan nabariagoa dena, eta negatiboki agresibitatearekin, gizonezkoen kasuan ohikoagoa.

### ***2.3.4. Laguntzeko prestutasuna***

Laguntzeko prestutasunaren ideia enpatiarekin loturik dagoen kontzeptua da, izan ere, sarritan ondokoari laguntza eskaintzeak, besteren lekuan kokatzeko gaitasun eta borondatea garatua izatea suposatzen du. Afektibotasun mailarekin ere harremandurik dago beraz, eta jokabide prosoziala abiapuntutzat du, hauek denak emakumezkoen ezaugarriak izanik.

Hala ere, jarrera honi dagokionean, Eagly eta Crowley (1986) ikerlarien arabera, gakoa, gizonezko edo emakumezkoek laguntzeko prestutasun maila altuagoa duten sakontzean baino, laguntza hau zein egoeratan ematen den dagoela adierazi zuten. Honakoak izan ziren ateratako ondorioak: gizonezkoek laguntza handiagoa ematen dute jarrera heroikoa exijitzen

duten egoeratan, hots, arrisku egoeretan, zeinak jendaurrean ematen diren; eta emakumezkoek, aldiz, zaintzarekin eta hezkuntzarekin lotutako jardueretan dira protagonista.

### **2.3.5. Lidergoa**

Lidergoa, “beste pertsona batzuen jokabidean eragiteko gaitasun” gisa definitu zuten González eta Guenagak (2005, 10 or.). Esanahi honek agerian uzten du lidergo eta botere kontzeptuaren arteko harremana. Beste autore batzuk (Errazkin, 2010; Weber, 2005) beste pertsonen jokabidean eragiteko gaitasun horri agintearen kontzeptua lotzen diote eta ideia honek lidergoa eta boterea harremantzen ditu.

Arestian aipatu bezala, genero bereizketa hierarkizazio sistema baten baitan ematen da, gizonezkoak paper dominantea eta emakumezkoak dominatua bereganatuz (Victoria Sauk 1988, 1989). Botere-harreman honetan gizonezkoa espazio ahaldundu eta botereduneko kokatzen da eta emakumezkoak berriz subordinazio egoera jasaten du. Beraz, azalduko kontzeptuen logikari jarraituz, lidergoa gizonezkoari atxikitzen zaion estereotipoa dela ondorioztatzen da. Ordea, Eagly eta Johnsonek (1990) aipatu bezala, rol honi dagokionean, ez dago genero bien arteko ezberdintasun esanguratsurik. Aitzitik, lidergo motei erreferentzia eginez, baieztatu zuten gizonezkoek eredu autokratiko edo autoritarioa erabiltzen dutela, eta emakumezkoek, aldiz, demokratikoagoa den eredu. Hortaz, generoak eta lidergo kontzeptuaren arteko loturak edukian baino forman du gako.

## **2.4. Ikerketaren justifikazioa**

Dokumentuan zehar aztertu ahal izan den moduan, sozializazio prozesu bereziak bizi dituzte gizon eta emakumeek, eta ondorioz, generoaren arabera estereotipo zehatz batzuk erroturik daude gaur egungo gizartean. Gizonezkoak produkziara eta eremu publikoan jardutera bideraturik daude, eta emakumezkoak, aldiz, erreprodukziara eta eremu pribatuan aritzeko gizarteratuak izaten dira (Cabral eta García, 2001; Ferrer eta Bosch, 2013; Poal, 1993). Negrok (2006) azaldu bezala, egungo gizartean emakumeak egozten zaio dependentzia egoeran dauden pertsonen zaintzaz arduratzeko erantzukizuna.

Zaintzan oinarritutako eremuen artean, adingabekoen harrera etxeak daude, zeina gizarte hezitzaileen lan eremu garrantzitsua osatzen duen gaur egun. Azpimarratzekoa da, alde betetik, espazio hauetan hezitzaile emakumezkoak gehiengoa direla, eta bestetik, gizarteratze prozesuak berebiziko garrantzia duela umeen etapa horietan. Gizarte hezitzaileek beraz,

konplexutasun maila handiko prozesu hauetan duten inplikazio eta eragiteko gaitasuna nabarmenaren ondorioz, paper oso garrantzitsua betetzen dute adingabekoen sozializazio prozesuan, bereziki bigarren sozializazioan.

Harrera etxean ematen den heziketaren garrantzia dela eta, ezin daiteke ahaztu generoaren lanketa, izan ere, genero egoera oso berezietatik datozen adingabekoak daude, eta hortaz, ezinbestekoa da harrera etxeetatik gai honi arreta berezia eskaintzea.

### **3. Metodologia**

Ikerketa honek izaera kualitatiboa dauka. Sandiri (2003) jarraiki, ikerketa kualitatiboa gertaera sozialak sakontasunean ulertzeko erabilia da eta aztergai dagoen Gradu Amaierako Lanean Oinarrizko Programa Orokorreko harrera etxe bateko ume eta nerabeen genero estereotipoen pertzepzioa ikertzeko aukera eskaini du, hain zuzen. Horrez gain, praktika eta agertoki ezberdinak eraldatzeko, erabakiak garatzeko eta ezagutzaren garapenaz ohartzeko aukera ere ematen du.

#### **3. 1. Helburuak**

Helburu orokorra:

Bizkaiko Oinarrizko Programa Orokorreko harrera etxe bateko ume eta nerabeek bertako gizarte hezitzaileen genero rolaen inguruan duten pertzepzioa aztertzea, ikerketa kualitatibo bat aurrera eramanez.

Helburu espezifikoak:

- Umeen eta nerabeen artean, hots, adinaren arabera, pertzepzioan eman daitezkeen ezberdintasunak identifikatzea.
- Adingabearen sexuaren arabera, sinesmen eta pertzepzioak ezberdinak izango diren ikertzea.

#### **3. 2. Hipotesiak**

Aurkezturiko helburuetan oinarrituta eta teoriak proposatzen duena praktikan frogatzeko asmoz, hainbat hipotesietatik abiatzen da ikerketa. Hipotesi nagusia, ume zein nerabeek harrera etxeko hezitzaileak genero estereotipo ezberdinen ezaugarrien arabera ezberdintzen

dituztela da. Gainera, aurreikusten da, nerabeek generoari dagozkion estereotipoen ezaugarriak era nabarmenagoan identifikatzea eta umeetan berriz, genero ezberdintasunaren eragina ez izatea horren nabaria. Azkenik, sexuaren arabera ere diferentziak topatzea iragartzen da. Neskek seguruenik gizonezko ezaugarriekin ohartuko dira gehiago eta haien sexuak diren hezitzaileen ezaugarriak identifikatzeko zailtasun gehiago izango dituzte. Mutilek aldiz, hezitzaile gizonezkoekin ez bezala, emakumezkoen ezaugarriak erraztasun gehiagorekin identifikatuko dituzte.

### **3. 3. Parte-hartzaileak**

Ikerketa hau aurrera eramateko hautatutako lagina Bizkaiko Foru Aldundiko Oinarrizko Programa Orokorreko harrera etxe bateko 7 eta 17 urte bitarteko 10 adingabekoez osaturik dago, zehazki, 5 mutil eta 5 neskez (ikus 3. Eranskina). Adingabe hauek babesgabetasun edo gizarte arrisku larrian dauden adingabeak dira eta familia gunetik aldi baterako irten eta beraien tutoretza Bizkaiko Foru Aldundiaren gain geratzea dakarren babes neurriko erabiltzaileak dira. Lagina bi taldetan bereiztea erabaki da: alde batetik, 7 eta 12 urte bitarteko 3 mutil eta 2 neskez osaturiko talde bat osatu da, eta bestetik, 13 eta 17 urte bitarteko 2 mutil eta 3 neskez osaturikoa. Bi taldeak beraz, parte-hartzaileen adina kontuan hartuta banatu dira, izan ere, adinera egokitutako trataera (gaia proposatzeko era, egindako galderak ...) emango zaie proposatutako bi eztabaida taldeei. Parte-hartzaile guztiak, duela 10 urte Europa Ekialdeko herrialde batetik etorritako bat izan ezik, Euskal Autonomia Erkidegoan jaiotakoak dira. Adingabe hauek zazpi begiraleren tutoretzapean daude harrera etxean. Begiraleen artean bi dira gizonezkoak eta beste 5ak emakumezkoak.

Ikerketan parte hartu duten ume eta nerabeek, aurretik nire zereginaren inguruan informatuak izan dira. Beraz, Gizarte Hezkuntzako ikaslea naizela eta Gradu Amaierako Lana burutzeko proposaturiko eztabaida taldeak direla badakite. Honela, eztabaida taldeetan parte hartzeko gonbidatuak izan dira, non identitatearen konfidentzialtasuna osoa gorde izan den. Ez da umerik derrigortu eta parte-hartzaile guztiak borondatez parte hartu dute. Lagina osatzen duten adingabekoen tutoreei informaturiko baimena (ikus 4. Eranskina) aurkeztu zaie eta guztiak ikerketa honetarako jasotako informazioa erabiltzea baimendu dute.

### **3. 4. Tresna: Eztabaida taldeak**

Ikerketa honen helburu nagusia hezitzaileengan identifikatzen diren genero estereotipoak aztertzea izan denez eta horretarako umeen ahotsak aztertu direnez, eztabaida

taldeak hautatu dira ikerketa aurrera eramateko teknikatzat. Eztabaida talde bat, ikerketa kualitatiboari dagokion teknika bat da, eta helburutzat baino, ezagutzarako metodo lez definitzen da (Callejo, 2001). Izan ere, eztabaida taldea, ezagutzaren garapenaz ohartzeko ekintza sistematikoa da (Sandin, 2003). Teknika honek, giza jokaeraren atzean dauden motibazioak sakontasunez ikertzea ahalbideratzen du (Ward, Bertrand eta Brown, 1991).

Ikerketaren ezaugarrietara ondoen erantzuten duen teknika da, izan ere, gai honen inguruan adingabekoen sinesmen eta testigantzak jaso, unean-uneko adingabekoen beharretara moldatu, eta ikuspuntu ezberdinen arteko eztabaida elikatzea ezinbestekotzat jo da.

Antolaturiko eztabaida taldeetan 5 ezaugarri (agresibitatea, soziabilitatea, enpatia, laguntzeko prestutasuna eta lidergoa) abiapuntutzat hartuz, zenbait egoera eta galdera planteatu dira eztabaida sustatzeko asmoarekin.

### **3. 5. Prozedura**

Ondorengo ikerketa, 2017ko martxoa eta apirilean zehar harrera etxe batean osaturiko eztabaida taldeen bitartez burutu da, eta orotara, datu bilketa hilabete bateko iraupena izan duen prozesua izan da.

6 saio (ikus 5. Eranskina) burutu dira guztira, 7-12 urte bitarteko taldearekin hiru saio eta 12-17 urte bitartekoekin beste hiru. Modu honetara, lehenengo saioa dinamikaren zentzua ulertzeko eta lehen iritziak jasotzeko erabili da, eta hurrengo bietan gehiago sakondu da planteaturiko gaietan. Eztabaida taldeen hitzorduak zehazteko, harrera etxe ko koordinatzailearekin hitz egin da eta adingabekoen egunerokotasunera hoberen moldatzen den uneetan egitea adostu da. Hortaz, asteen saio bana burutu da talde bakoitzarekin, guztira hiru asteko iraupeneko prozesua izanik.

Parte-hartzaileekin egindako hasierako eztabaida taldeetan izandako lehenengo erreferentziak eta ume eta nerabeekin hitz egin ostean, eztabaida taldeak 20 eta 30 minutu artekoak egitea erabaki izan da. Saioen hasiera eta amaiera orduaren jakinaren gainean egon dira uneoro parte-hartzaileak, izan ere, Ibañezek (1986, 274 or.) esan bezala “iraupenaren inguruko aurreratutako ezaguerak soilik azkartu dezake adostasuna”.

Eztabaida taldeetako gaiak adinaren arabera trataera eta garapena izan duten arren, gidoi orokor berdina jarraituz diseinatu dira (ikus 6. Eranskina). Horretarako, aipaturiko 5



ezaugarriak harrera etxeko hezitzaileen jarrera edo izaeran identifikatzeko helburuarekin, egunerokotasuneko egoera arruntak planteatu zaizkie parte-hartzaileei eta adingabekoen iritzietatik abiatutako eztabaida sustatu da. Hori dela eta, eztabaida saio bakoitzak, etapa edo fase ezberdinak izan ditu, eta horietako bakoitzean, aipaturiko 5 ezaugarrietako baten inguruan aritu dira parte-hartzaileak. Hori horrela, ezaugarri guztien inguruan hitz egin da saio guztietan.

Gidoi orokor horri trataera egokia eman, eztabaidagai ezberdinen arteko loturak egin eta eztabaida taldeak burutu ahal izateko, ezinbestekoa izan da moderatzailearen papera zehaztea. Buruturiko saioak dinamizatzeko bidean, gai ezberdinak planteatu, hitz egiteko txandak dinamizatu edo parte-hartzaileei zuzenduriko galderak formulatzeko funtzioaz gain, behatzaile papera ere hartu du moderatzaileak. Parte-hartzaileen diskurtsoaren erreproduzio prozesuak behatu ditu, hain zuzen ere. Dinamizatzailearen azken eginbearra, eztabaida taldeak burutzeko bete beharreko arauak finkatzea izan da, izan ere, bi arau edo irizpide nagusi egon dira. Lehena, errespetuz aritzea (kideak zein dinamizatzaileari errespetuz zuzentzea, saioan zehar planteaturiko gaiei trataera egokia ematea eta hitz egiteko txanda eskatzea), eta bigarrena, parte-hartzea librea dela eta norbaitek parte-hartu nahi ez badu saiotik irteteko aukera zabalik dagoela jakinaraztea.

Eztabaida talde hauek aurrera eramateko toki egokia aukeratzea oso garrantzitsua da, parte-hartzaileak gustura eta giro lasaian aritzeko, hori dela eta, eztabaida talde guztiak harrera etxean izan dira. Saio guztiak audioz grabatuak izan dira, beti ere harrera etxeko adingabekoen zein gizarte hezitzaileen onarpenarekin. Audio grabagailua bitarteko egokia da, ez baita bideoa bezain intrusiboa (Morgan, 1988) eta Callejok (2001) esan bezala, hasiera batean, parte-hartzaileek grabagailuaren presentzian kontutan hartu arren, denbora pasa ahala honen existentzia ahazteko tendentzia dute.

### **3. 6. Datuen tratamendua**

Edukiaren analisia ikerketatik lortutako datuen bidez gauzatu da. Informazio hau transkribatu ondoren, zuzentasunez aztertu da ikerketaren helburua lortzeko.

Horrela, analisi kualitatiboan lortutako informazioarekin idatzizko corpusa osatu da eta adingabekoen emandako erantzunak analizatu dira, emaitzak deskribatu eta hausnartu dira. Behin erregistroa jasota, kodifikazio teknikak aplikatu dira eta emaitzak kategoriatan

ezberdinetan sailkatu dira generoari atxikituriko estereotipoetan oinarrituz. Ume eta nerabeen profila ere sailkapen honetan aintzat izan da honako aldagai hauen arabera: adina eta generoa.

#### **4. Emaitzak**

Ikerketa aurrera eramateko hartutako egitura kontuan izanda, ondorengo lerroetan, eztabaida taldeetan lortutako informazioaren analisiaren emaitzak aztertzen dira, estereotipoaren eta adinaren arabera bi talde nagusitan bereizita: alde batetik, 7-12 urte bitarteko adingabekoekin buruturiko saioretan lortutako emaitzak, eta beste alde batetik, 12-17 urte bitarteko adingabekoekin lortutakoak.

##### **4.1. 7-12 urte bitarteko adingabekoak**

###### ***Agresibitatea***

Parte hartzaileen gehiengoak, harrera etxeko gizarte hezitzaile gizonetakoekin harremanu ditu jarrera agresiboak. Izan ere, errieta bortitz eta mehatxu kopuru gehien burutzen dituzten hezitzaileak, gizonetakoak direla uste dute.

*-Ellos son los que más broncas nos echan, empiezan a chillar diciéndonos todo lo que hacemos mal y nos dicen... ¡ven aquí ya! O castigada a tu cuarto (ahots maskulinoa, grabea, imitatuz eta eskuak alde batera eta bestera indarrez mugituz). A<sub>2</sub>*

Harrera etxeko gizarte hezitzaileen agresibitatea neurtzeko errieta kopuruetan arreta jartzeaz haratago, garrantzitsua da errieta botatzeko eredu aztertzea. Izan ere, adingabeko denek antzeko pertzepzioa dute errieta botatzerako orduan gizarte hezitzaile gizonetakoekin eta emakumeetakoekin dituzten modu bereizien inguruan. Parte-hartzaile guztiek, errieta botatzeko eredu agresiboa gizonetakoekin harremanu duten bitartean, emakumeetakoekin lotu dute era lasaiago baten errieta egiteko ohitura.

*-Ellos te echan la bronca y te chillan muy fuerte y a veces te pegan con la cuchara en la cabeza o te empujan, así. Y a veces te llevan al cuarto como haciendo Yudo. Y las educadoras pues te castigan una semana o así... bueno, solo hay una que si te lleva del brazo al cuarto. A<sub>2</sub>*

*-Los chicos te agarran y las chicas son más de echar la bronca. A<sub>5</sub>*

*-Ellos chillan y te amenazan, ellas solo te chillan... bueno, una si amenaza. A<sub>5</sub>*

*-Las chicas nos riñen diferente. Ellas nos chillan y ellos nos amenazan muy fuerte. A<sub>3</sub>*

*-Son diferentes porque cuando les dices algo, pues las chicas un poquito más tranquilas y los chicos mas furiosos. A<sub>4</sub>*

*-El tiene más genio, a ella me la imagino echando la bronca pero más tranquila. A<sub>1</sub>*

Gainera, bi parte hartzailearen esanetan, jolasteko unean ere hezitzaile gizon eta emakumeen arteko ezberdintasuna nabaria da.

*-Con él jugamos a un juego de poner la mano roja que es de dar golpes así fuerte. A<sub>5</sub>*  
*-Con ella jugamos a juegos guays como el de las tres estrellas en el mar. A<sub>2</sub>*

Hala eta guztiz ere, babes gutxiago jaso duen teoria den arren, adingabeko batzuk bi emakume hezitzailearen jarrera, agresibotzat identifikatu dituztela azpimarratzekoa da. Kontuan hartzekoa da, hezitzaile emakumezko hauen jarrera agresiboa, gizonezkoen ohiko jarrerarekin harremandu dutela eta bi emakume hauek salbuespen gisa aurkeztu dituztela.

*-Ellas dos son como ellos, si haces algo mal vienen corriendo y empiezan a chillarte y te dicen: ¡castigado! A<sub>4</sub>*

### **Laguntzeko prestutasuna**

Laguntzeko prestutasunaz hitz egiterakoan gizarte hezitzaile guztiak laguntzeko borondate maila berdinarekin ikusten dituztela baieztatu dute parte-hartzaile denek.

*-Todos nos ayudan igual, o bueno el que en ese momento este trabajando nos suele ayudar. A<sub>5</sub>*

Parte-hartzaileak egoera zehatz batzuen aurrean kokatzerakoan aldiz, eta laguntzeko prestutasun gehien erakutsiko lukeen gizarte hezitzaileaz galdetu zaienean, iritziz aldatu dute denek. Izan ere, arrisku uneetan laguntzeko prestutasun gehien hezitzaile gizonek dutela uste dute.

*-El nos sacaría del agua porque tiene pinta de rescatarnos y así. A<sub>3</sub>*  
*-Si viene por ejemplo un perro a morderme vendrían los chicos porque es que las educadoras no creo que se atrevan. A<sub>5</sub>*

Zaintzarekin lotura duten egoerak berriz, hezitzaile emakumeekin harremandu dituzte.

*-A mi no me gusta como da él la crema de sol, porque te la da a golpetazos. A<sub>2</sub>*  
*-Me gusta como dan ellas la crema, porque hacen masajes y te hacen cosquis... ellos son unos brutos. A<sub>5</sub>*

Azkenik, arazoan aurrean laguntzeko estrategia edo modu ezberdinak dituztela azpimarratu du batek eta ondoren beste bik arrazoia eman diote.

*-Pues ellas te dicen arréglalo y te hablan. Los chicos por ejemplo están enfadados cuando por ejemplo si tienes un problema cuando tienes un móvil robado los chicos te dicen estoy enfadado, vaya vergüenza me has dado, ¡vaya vergüenza! Y las chicas te dicen háblalo por favor, háblalo. A<sub>2</sub>*

Ildo beretik, beste batek, hezitzaile gizon eta emakumeek adingabekoek dituzten arazoei irtenbideak bilatzeko teknika ezberdinak dituztela adierazi du.

*-Son diferentes en la forma de ser. Los chicos te dicen “¿estás bien? Bueno vete al cuarto un poco y luego me dices si estas mejor“... o así. Y las chicas están contigo más tiempo y hablan sobre las emociones. A<sub>5</sub>*

Beste bi parte-hartzaile ados egon dira azken iritzi honekin baina hezitzaile emakume baten salbuespena gehitu dute, beraien esanetan, hezitzaile gizonezkoen jarrera berdina izaten du eta.

*-Yo pienso como ella, pero hay una educadora que es como los chicos. A<sub>1</sub>*

*-Las chicas con esas cosas ayudan mas pero hay una que no creo que nos ayude, pero las chicas si pero no todas. A<sub>4</sub>*

### **Enpatia**

Parte-hartzaileen testigantzen arabera, triste sentitu edo zerbait txarra gertatzen zaien bakoitzean, bizi dituzten emozioen inguruan aritzeko, erreferentziazko zein hezitzailearekin hitz egiten duen jakinarazi du bakoitzak. Era honetako gaien inguruan aritzeko aukeratzen dituzten hezitzaile hauetako batzuk errepikatu dira, baina batek ere ez du gizonezko hezitzailearik aipatu. Denek hezitzaile emakumeak izendatu dituzte, batez ere, horrelako gaietan ondo ulertzen dietelako eta konfidentzialtasuna ondo gordetzen dutelako argudiatuz.

*-Siempre que me pasa algo así hablo con las educadoras porque ellas entienden más de esas cosas y te ayudan más. A<sub>4</sub>*

*-Los chicos son unos pesados y seguro que dirían “da igual, eso no es nada, porque a mí me han pasado cosas peores”. A<sub>5</sub>*

*-Porque es como que guardan los secretos, de ellas no sale nada. A<sub>3</sub>*

### **Soziabilitatea**

Ildo beretik, hezitzaile emakumeak jarrera afektiboekin lotu dituzte, eta besarkatzeko ohitura gehiago dutela azaldu du gehiengoak. Gizonezkoak aldiz, ez dituzte horrelako jokaerekin harramantzen.

*-Las que más abrazos dan son ellas, porque son chicas. A<sub>1</sub>*

*-Las chicas nos hacen cosquillas cuando nos vamos a la cama. Porque las chicas son más de eso, no sé, más tranquilas. A<sub>4</sub>*

*-Yo no pienso así porque los chicos no nos dan besos a los chicos. A<sub>4</sub>*

*-Yo pienso igual, pues que las chicas son como más tranquilas, más cariñosas, y te hacen cosquillas. A un educador un día le pedí hacerme cosquillas y además de hacerme como hacen las chicas, empezó a hacerme así, fuerte. A<sub>2</sub>*

Adingabeko mutil batek iritzi hori defendatu duen arren, gizonezko hezitzaileak ere besarkadak eta keinu afektiboak egiten dizkiola adierazi du.

*-Las chicas por ejemplo te hacen cosquillas si te has portado bien y... o si no te portas mal no te hacen cosquillas, o sea si has pegado a alguien... y los chicos no te hacen nunca cosquillas, ¡te dan besos! Me dan un beso cuando te vas a ir a la cama. Y hay un educador por ejemplo me hace masajes. A<sub>2</sub>*

## **Lidergoa**

Harrera etxeko erabaki gehienak emakumezko hezitzaileak hartzen dituztela uste du gehiengoak.

*-Las que más mandan son las educadoras. Y a veces si algún educador hace algo mal les echan la bronca y así. A<sub>5</sub>*

Horrez gain, bi neskek azpimarratu dute, hezitzaile emakumeak izaten direla normalean planak egiteko iniziatiba gehien izaten dutenak.

*-Los chicos no cambian los planes. Bueno nunca les he visto hacer planes ni intentar que no vayamos a eso. A<sub>3</sub>*

*-Las últimas veces que hemos ido con las chicas hemos ido a sitios guays y con los chicos pues hemos ido eh... a Pinotxo (a la plaza) y así que eso ya llevamos casi siempre yendo y es muy aburrido. Con las chicas pues hemos ido pues por ahí, a más sitios, a descubrir más nuevos sitios. A<sub>5</sub>*

Adingabekoen plan eta gustuetara moldatzeko gaitasuna dela eta aldiz, ez da ezberdintasun esanguratsurik topatu eta gizarte hezitzaile denak modu berdinean ikusten dituztela adierazi dute denek.

*-Para eso son todos iguales, los educadores y las educadoras. A<sub>5</sub>*

## **4.2. 12-17 urte bitarteko adingabekoak**

### **Agresibitatea**

Adin tarte honetako parte-hartzaileek ez dute agresibitatearekin loturiko ezberdintasunik ikusten gizonezko eta emakumezko hezitzaileen artean. Hezitzaile batzuk besteak baino agresiboagoak direla baieztatu dute, baina adierazi dutenez, kasu honetan ez da agresibitatearen eta sexu bereizketaren arteko harremanik antzematen. Gainera, parte-hartzaile batek, errieta egiterako orduan diferentzia markatzen duena sexua baino, ahots tonua dela adierazi du.

*-Todos echan la bronca cuando hacemos algo mal pero cada uno la echa de diferente manera pero la diferencia no es si es educador o educadora. Por ejemplo, hay una educadora que echa la bronca más alterada y otra más relajada. B<sub>1</sub>*

*-Los educadores te pueden echar la bronca igual que otras educadoras, por ejemplo oye no hagas esto, no hagas más y así pero por ejemplo otras educadoras también te pueden chillar igual. B<sub>4</sub>*

*-Las broncas no son chicas o chicos, es que algunas chicas echan la bronca de una forma y otras de otra, y algunos chicos de una y otros chicos de otra. B<sub>5</sub>*

*-Yo creo que es más por el tono de voz, pero no es que sean chicos o chicas, sino el tono. Por ejemplo hay una educadora que chilla mucho pero por su tono... y otro menos por que tienen otro tono de voz. B<sub>1</sub>*

Gainera, errieta bat modu agresiboan botatzea harrera etxeko zein hezitzaileekin harremantzen duten galdetu zaienean adingabekoei, bakoitzak hezitzaile bat aipatu du baina kasu batetan ere ez da inongo loturarik aurkitu agresibitatea eta sexu zehatz bateko hezitzaileen artean.

### ***Laguntzeko prestutasuna***

Parte-hartzaileen iritziz harrera etxeko gizarte hezitzaileek duten laguntzeko prestutasuna aztertzeko helburuarekin bi egoera planteatu zaizkie: lehena, laguntza emateko arrisku egoera bat, eta bigarrena, zaintzari loturiko laguntza egoera bat. Eztabaida taldeko adingabeko denek harremandu dute lehen egoera gizonezko hezitzaileekin, eta bigarrena aldiz, emakumezko hezitzaileekin.

*-Nos sacaría del agua un educador chico porque son más valientes y más atrevidos. B<sub>4</sub>*

*-En el tema de las cremas ellas son mas buenas y dan más suave. B<sub>5</sub>*

*-A mi me daría una educadora porque ella se cuida mucho la piel. B<sub>5</sub>*

### ***Enpatia***

Adingabeko guztien arabera, bakoitzaren tutorea da hoberen ezagutzeaz gain, haien lekuan jartzeko ohitura gehien duena eta beraien arazoak konpontzeko baliabideak jartzen dituztenak.

*-A cada uno nuestro tutor porque nos conocen, y nos ayudan a mejorar, y nos dicen lo que hemos empeorado y nos ayudan. B<sub>2</sub>*

*-Yo creo que básicamente a nuestro tutor porque creo que nos lo han asignado porque creen que son los que mejor nos entienden. B<sub>4</sub>*

Hala ere, emozioak ulertzeko unean, emakume hezitzaileek gaitasuna handiagoa dutela nabarmendu dute denek. Izan ere, triste daudenean emakumezkoek haiengana hurbiltzeko joera azpimarratu duten bitartean, gizonezkoak hotzagoak direla uste dute.

*-Ellas entienden más de emociones y cuando estamos tristes saben mejor como ayudarnos. B<sub>1</sub>*

*-Las educadoras siempre que necesitas hablar están ahí y te entienden y te ayudan. En ese tema es como que se preocupan más y están encima nuestro para ayudarnos. B<sub>4</sub>*

*-Hay una educadora con la que he hablado mil veces de cosas así y sé que me entiende y todo. B<sub>3</sub>*

*-Ellos son como más ásperos, más agrios y más cerrados. B<sub>4</sub>*

*-Hay un educador que no entiende nunca lo que nos gusta. No nos entiende tan bien porque si no coincides con él, pues no llega. B<sub>2</sub>*

Nerabe neska bik adierazi dute, gaiaren arabera hezitzaile batek edo besteak hobeto ulertzen duela bere egoera. Azaldu dutenez, nesken arteko gomendio bat jaso nahi duenean, neskengana joaten direla eta haiek hobeto laguntzen dietela.

*-Yo depende que tema es, si es mas tema de normal o así no me importa contárselo a un educador. Y si es algo en plan de para dar un consejo que tiene que ver más con las chicas pues me gusta más contárselo a las chicas. B<sub>1</sub>*

*-Si, como por ejemplo una cosa de chicas o una cosa de la regla no se la diría a un chico porque no entienden mucho. B<sub>4</sub>*

### **Soziabilitatea**

Kasu honetan, emakumezko hezitzaile denak jarrera maitekor eta afektiboa dutela azaldu duten arren, gizonezko batzuk ere horrelako jokabidea izaten dutela adierazi dute denek.

*-Hay una educadora que suele venir a donde mí y me pregunta si quiero un abrazo. B<sub>1</sub>*

*-Ellas son más de darte abrazos y ese tipo de cosas, sabes. B<sub>3</sub>*

*-Hay un educador que es más de pegar que de dar abrazos. Y antes, cuando era pequeña, yo le hacía como para abrazar porque lo necesitaba, y él me apartaba, se alejaba. B<sub>4</sub>*

*-Hay algunos educadores que si son de dar abrazos, como más dulces y cariñosos. B<sub>1</sub>*

Hala ere, azpimarratzekoa da adingabeko baten ustez gizonezkoetan orokorrean ohikoena dela besarkadarik ez ematea. Gainera, agresibitatearekin zuzenean harreman du.

*-Porque él es como muy hombre, que los abrazos no ... él es mas de puñetazos. B<sub>4</sub>*

Azkenik, salbuespen gisa, harrera etxeko hezitzaileen aldetik besarkadarik jasotzen ez duela adierazi duen parte-hartzaile bat egon da.

*-A mi aquí nunca me dan abrazos. B<sub>2</sub>*

### **Lidergoa**

Harrera etxeko hezitzaileen artean lider papera duenagatik galdetu zaienean, erdiak gizonezkoak liderragoak direla uste izan du eta beste erdiak kontrakoa, hau da, emakumezkoek dutela lidergo maila altuagoa.

*-Los educadores son más líderes porque yo creo que mandan más. B<sub>3</sub>*

*-Son las chicas las que deciden más y a veces si creen un educador ha hecho algo mal o así le corrigen, a los propios educadores eh! B<sub>1</sub>*

Nagusien taldeko eztabaida saioetan parte hartu duten adigabekoetatik bik uste dute hezitzaile denak, izan gizon edo emakume, haien iritzia kontuan izaten dutela planak egiterako orduan adibidez.

*-Para hacer planes todos cuentan con nosotros. B<sub>5</sub>*

*-No solo piensan en los pequeños del hogar, también piensan en los mayores. B<sub>2</sub>*

Baina beste hirurak, gizonezko hezitzaile baten salbuespenarekin, onartu dute hezitzaile emakumeak gizonezkoak baino malguagoak direla planak erabakitzerako orduan eta adingabekoen iritzia gehiago hartzen dutela kontutan.

*-A ellas no les importa que plan hagamos, o sea en plan nos toman en cuenta. B<sub>1</sub>*

*-Con ellos no hacemos cosas que con las educadoras si podemos hacer. Por ejemplo si a los educadores les dices para ir a la playa o para ir a algún sitio más así pues no, te dicen que no. B<sub>4</sub>*

*-Bueno con un educador sí, por ejemplo cuando le pedimos ir al monte a dormir aunque no esté trabajando lo intenta... o sea que nuestros planes se hagan, se cumplan. B<sub>1</sub>*

## **5. Ondorioak**

Harrera etxean antolaturiko eztabaida taldeen bitartez, adingabekoek bertako gizarte hezitzaileen inguruan duten genero estereotipoen pertzepzioan sakondu da. Ikerketan lortu diren emaitzei erreparatuta, ikerketan planteatzen zen helburu orokorra bete egin da eta harrera etxeko adingabekoek bertako gizarte hezitzaileen genero estereotipo ezberdinak identifikatu dituzte. Lortutako emaitzak, adinaren arabera ondorioztatu dira alde batetik, eta adingabekoen sexuaren arabera beste alde batetik.

Lehenengo helburu espezifikoki dagokionez, ume eta nerabeen pertzepzioen artean diferentzia esanguratsuak daudela antzeman da. Hiru estereotipoen kasuan (enpatia, soziabilitatea eta laguntzeko prestutasuna) antzekotasunak topatu dira adin tarte ezberdineko taldeen artean eta beste bi estereotipoetan aldiz (agresibitatea eta lidergoa), iritzi ezberdinak izan dituzte ume eta nerabeek.

*Laguntzeko prestutasunari* dagokiola, bi taldeetako parte-hartzaile denek iritzi berdina izan dute, eta aurkezturiko ideiek, Eagly eta Crowleyren (1986) teoria bat egin dute. Gakoa, laguntzeko egoeren ezaugarrietan dagoela adierazi dute, izan ere, adingabeko denek arrisku egoerek exijitzen dituzten jokabide heroikoak gizonezkoekin lotu dituzte, eta zaintza egoerak aldiz emakumezkoekin.

*Enpatiari* dagokionez, Einsenbergeta Lennonen (1983) teoriarekin bat egiten dute bai harrera etxeko umeek zein nerabeek. Gizartean hedaturik dagoen tendentzia ikerketako emaitzetan jaso dute parte-hartzaile guztiek eta Retuertok (2004) proposatutako teoriarekin bat egiten dute, emakumezkoen orientazio afektibo prosoziala nabarmenduz eta gizonezkoen ekintza instrumentalak azpimarratuz. Umeen taldearen kasuan, autore ezberdinek (Singh-



Manoux, 2000; Sobral, Romero, Luengo eta Marzoa, 2000) azaldutako agresibitatea eta enpatia-aren arteko harremana baieztatzen da, izan ere, haien ustez emakumezkoak enpatikoagoak dira eta beraz, ez dira hain agresiboak, eta gizonezkoak berriz, enpatia gutxiago dutenez agresiboagoak dira. Nagusiagoak diren parte-hartzaileen kasuan gainera, bi ideia gehitu dituzte: alde batetik, haien tutore figura nabarmendu dute, eta horrek agian adin horietan ematen diren gertaerekin (nerabezaroa) lotu daiteke, eta bestetik, enpatia maila gaiaren arabera izaten dela adierazi dute, kasu honetan ere gaztarorako trantsizio garaian ohikoan izaten diren lotsa, konfiantza edo beldurra moduko elementuek baldintzatuta.

*Sozialitatearen* kasuan, laguntzeko prestutasunarekin gertatzen den moduan, adin tarte ezberdineko bi taldeen artean ezberdintasunik aurkitu ez direla ondorioztatzen da. Bi taldeek Buss eta Plominen (1975) proposatutakoarekin bat egiten dute eta emakumezkoak afektiboagoak, maitagarriagoak eta ulerkorragoak direla nabarmentzen dute. Hori dela eta, ondorioztatu daiteke estereotipo biek ezaugarri asko dituztelako komunean eta hori dela eta erantzunetan antzekotasunak nabari dira ere.

Adingabeko gazteenek Maccoby eta Jaclinek (1974) esandakoarekin bat egin dute gizonezko hezitzaileen jarrera *agresibotasunarekin* lotuz, eta horrekin batera Searsen (1975) teoria ere baieztatu da eta emakumezkoak izaera prosozialarekin eta gizonezkoak antisozialarekin identifikatu dituzte. Nagusiengoen kasuan aldiz, ez da ezberdintasunik antzeman emakumezko eta gizonezkoen ezaugarrien artean. Gertarakari hau, bat dator Deux eta Lewis (1984) esandakoarekin, izan ere, autore hauen arabera norbanako bat gehiago ezagutzen den heinean, generoak influentzia gutxiago du eta bere eragina inguruko pentsamenduan murrizten da.

*Lidergoaren* kasua da, ume eta nerabeek iritzi ezberdinak izateaz gain, aurkezturiko teoriarekin apurtzen duen estereotipo bakarra. Haurren ustetan, hezitzaile emakumeak dira erabaki gehienak hartzeaz gain planak ere egiteko inizatiba gehien dutenak. Adingabeko hauen ustez beraz, eta lidergoaren kasuan zentratuz, Victoria Sauk (1988, 1989) azalduko genero sistema hierarkikoaren eskema apurtzen da, izan ere, ez dituzte gizonezkoak dominante (lider) eta emakumeak dominatu gisa ikusten. Hala ere, eta Eagly eta Johnsonen (1990) emakumezkoek lidergo eredu demokratikoa eta gizonezkoak autoritarioa izateko joera dutela baieztatu arren, adingabekoen testigantzen arabera harrera etxeko gizarte hezitzaile guztiak haur edo nerabeen plan eta gustuetara moldatzeko gaitasun eta borondate berdina

dute. Nerabeen kasuan aldiz, iritzi ezberdinak egon dira; erdiak uste du gizona liderragoak direla, eta beste erdiak berriz, emakumezkoak liderragoak direla.

Bigarren helburuari dagokiola, ez da emaitza esanguratsurik topatu mutilek eta neskek emandako erantzunen artean. Bi sexuetakoko parte-hartzaileek erantzun antzekoak eman dituzte eta ez da ezberdintasun nabarmenik topatu. Neskek gizona ezaugarri gehiago erreparatuko zirela, eta mutilek emakumezkoen uste baten ere, ikerketa honen bitartez ondorioztatu izan da bai neskek zein mutilek antzeko pertzepzioak izan dituztela sexuari dagokiola. Emaitza honen arrazoia taldeak eratzeko orduan jarraitutako irizpidean egon daiteke, izan ere, talde mistoak antolatuta dira, eta baliteke honek, iritzien arteko influentzia areagotzea.

Azkenik, ume eta nerabe bi talde hauekin buruturiko eztabaida taldeen bitartez lorturiko emaitzen artean berezitasun aipagarri bat aurkitu da. Estereotipo ezberdinen inguruan antolatuta diren eztabaida taldeetan, kasu batzuetan, bi emakumezko hezitzaile gizona ezaugarriekin lotu dira. Aztertutako kasuen gehiengoak genero estereotipoen teoriak esaten duenarekin bat egin badu ere, bi hezitzaileen salbuespena aurkitu da. Honek esan nahi du, aztertutako harrera etxean emakumezko hezitzaile bik ez dutela emakumezkoari dagozkion ezaugarriekin bat egiten eta gizona hartzen diren ezaugarrietako batzuekin identifikatzen dituzte.

Laburbilduz, ondorioztatu da, harrera etxeko adingabekoen gehiengoak gizarte hezitzaileen genero rolen inguruan dituzten pertzepzio eta sinesmenek autore ezberdinen teoriarekin bat egiten dutela. Gizarteratze prozesuak funtsezko papera betetzen du genero estereotipo ezberdinen eraikuntzan eta gizarte hezitzaileak prozesu honen arduradun garrantzitsuenetarikoa izanik, ezinbestekoa izango da hauen funtzioa ahalik eta erarik egokienean burutzea eta genero perspektiba txertatzea. Hori dela eta, generoaren inguruko formakuntzak oraindik ere ekarpen handia dauka egiteko Gizarte Hezkuntzaren esparruan.

## **6. Ikerketaren mugak eta etorkizuneko ikerketak**

Ikerketan zehar osaturiko eztabaida taldeen bitartez, hasiera baten proposaturiko helburuak erdietsi badira ere eta harrera etxeko adingabekoek bertako gizarte hezitzaileak genero rol ezberdinetan zehazten diren ezaugarrien arabera identifikatzea lortu arren, lanak izan dituen mugak ere adieraztea garrantzitsua da. Alde batetik, ikerketako parte-hartzaileen kopurua mugatua izan da. Izan ere, adinaren arabera banaturiko 5 kidez osaturiko eztabaida taldeak osatu dira, eta Folch-Lyon eta Trosten (1981) arabera, eztabaida taldeko parte-

hartzaileen arteko elkarreragin maila egokia egoteko gomendagarria da 6 parte-hartzaile baino gehiagoko eztabaida taldeak eratzea. Gainera, lagin kopurua mugatua izan da eta honek ikerketa guztiz baldintzatzen du. Beste alde batetik, saioak dinamizatu eta hauen behaketa lanaz arduratu dena pertsona berdina izan da, egokiena bi funtzio hauek pertsona ezberdinak egitea den arren. Aipatzekoa da, Gradu Amaierako Lanera egokitutako ikerketa izan dela eta komenigarria litzatekeela saio gehiago burutzea ikerketak osotasun handiagoa har dezan. Azkenik, hurrekin buruturiko eztabaida taldeen kasuan, gai baten inguruan eztabaida modu egokian mantentzeko zailtasunak nabariak izan dira. Ezin izan dute atentzioa denbora luzez eztabaidan zentratu eta askotan ondokoarekin jolasten egon dira.

Bukatzeko, adieraztea, ikerketa hau azterturiko gaien sakontzen hasteko lehen urrats bat baino ez dela eta Oinarrizko Programa Orokorreko harrera etxe gehiagotan adingabeok bertako gizarte hezitzaileen generoen rolen inguruan duten pertzepzioa aztertzea interesgarria izango litzatekeela. Modu honetan, parte-hartzaile kopurua handituko litzateke, eta baita gai lantzeko protokolo edo esku-hartze ezberdinak diseinatzeko aukera zabalduko litzateke. Azkenik, programa ezberdinen baitan dauden harrera etxeetan, ildo honetako ikerketak egin eta hauen arteko emaitzak alderatzeak, ondorio esanguratsuak plazaratu ditzake.

## **7. Erreferentzia bibliografikoak**

- Adams, K. A. eta Landers, A. D. (1978). Sex difference in dominance behavior. *Sex Roles*, 4, 215-224.
- Agirrezabala, M. E. (2010). Herritarren eguneroko ogia: beldurra, gosea eta inbidia. Emozioak, indarkeria eta gizarte-egiturak lehen frankismo-garaian (1936-1945). *Ankulegi: gizarte antropologia aldizkaria*, (14), 47-58.
- Allport, G.W. (1954). *The nature of prejudice*. Massachusetts: Addison-Wesley Publishing Company.
- Ashmore, R. D., eta Del Boca, F. K. (1981). Conceptual approaches to stereotypes and stereotyping. *Cognitive processes in stereotyping and intergroup behavior*, 1, 35
- Bandura, A. (1987). *Pensamiento y acción*. Barcelona: Martinez Roca.
- Berger, P. L. eta Luckmann, T. (1967). *La construcción social de la realidad*. Buenos Aires: Amorrortu editores.
- Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskola UPV/EHU (2017). 2013, 2014, 2015, 2016 GH-ko ikasleak (excel dokumentua).

- Bizkaiko Foru Aldundia GUEF-IFAS (2016). *Haur eta nerabeentzako zentroak eta etxebizitzak*. 2016ko abenduaren 26an berreskuratua, <http://www.ifas.bizkaia.eus/interior.asp?pagina=QVMXPCBONJPLSPFIRDMYPJCVVQQMTWFJSEUG&idioma=ca-tik>.
- Buss, A. H. eta Plomin, R. (1975). *El desarrollo de la personalidad*. Madrid: Marova.
- Cabral, B.E. eta García, C.T. (2001). Deshaciendo el nudo del género y la violencia. *Otras Miradas*, 1(1), 60-76.
- Callejo, J. (2001) *El grupo de discusión: introducción a una práctica de investigación*. Barcelona: Ariel.
- Colom, J. (1994). *Evolución de los estereotipos de género en función de las representaciones sociales*. Publikatu gabeko doktorego tesia, Bartzelonako Unibertsitatea, Bartzelona.
- Correll, S., Thébaud, S. eta Benard, S. (2007). An Introduction to the Social Psychology of Gender. *Advances in Group Processes*, 24, 1-18.
- Deux, K. eta Levis, L. L. (1984). Structure of gender stereotypes: Internationalships among components and gender label. *Journal of Personality and Social Psychology*, 46, 991-1004.
- Durkheim, E. (1993). *Hezkuntza eta soziologia*. Donostia: Klasikoak.
- Eagly, A. H. eta Crowley, M. (1986). Gender and helping behavior: A meta-analytic review of the social psychological literature. *Psychological Bulletin*, 100, 19-28.
- Eagly, A. H. eta Johnson, B. T. (1990). Gender and leadership style. *Psychological Bulletin*, 108, 233-256.
- Eisenberg, N. eta Lennon, R. (1983). Sex differences in empathy and related capacities. *Psychological Bulletin*, 94, 100-131.
- Eustat (2014). Personal ocupado en los servicios sociales de la C.A. de Euskadi por territorio histórico, titularidad y cualificación, según sexo. Fuente: Departamento de Empleo y Políticas Sociales. Estadística de servicios sociales y acción social. 2017ko urtarrilaren 18an berreskuratua, [http://www.eustat.eus/elementos/ele0004500/ti\\_Personal\\_ocupado\\_en\\_los\\_servicios\\_sociales\\_de\\_la\\_CA\\_de\\_Euskadi\\_por\\_territorio\\_historico\\_titularidad\\_y\\_cualificacion\\_seg\\_un\\_sexo/tbl0004521\\_c.html#axzz4iVhSpxww](http://www.eustat.eus/elementos/ele0004500/ti_Personal_ocupado_en_los_servicios_sociales_de_la_CA_de_Euskadi_por_territorio_historico_titularidad_y_cualificacion_seg_un_sexo/tbl0004521_c.html#axzz4iVhSpxww).
- Eysenck, H. J. (1981). *La desigualdad del hombre*. Madrid: Alianza.
- Ferrer, V. eta Bosch, E. (2013) Del amor romántico a la violencia de género. Para una coeducación emocional en la agenda educativa. *Profesorado*, 17(1), 105-122.

- Foch-Lyon, E. eta Trost, J. F. (1981). Conducting focus group sessions, *Studies in Family Planning*, 12 (12), 443-449.
- Galindo, R. (1991). La socialización del lenguaje y el desarrollo de la alfabetización. *Lectura y vida*, 9(2).
- Giddens, A. (2001). *Sociología*. Madrid: Alianza Editorial.
- Gil, J. (1993). La metodología de investigación mediante grupos de discusión. *Enseñanza*, (10-11), 199-214.
- Gonzalez, M. eta Guenaga, G. (2005). Boterea eta lidergoa antolakuntzetan: kontzeptuak, taktikak, emaitzak. *UZTARO*, 54, 9-26.
- Hyde, J. (1995). *Psicología de la mujer: la otra mitad de la experiencia humana*. Madrid: Morata
- Hyde, J. S. eta Shuck, J. R. (1977). The development of sex differences in aggression. American Psychological Association APA asanbladari aurkeztutako dokumentua: San Francisco.
- Ibañez, J. (1986). *Más allá de la sociología. El grupo de discusión: teoría y crítica*. Madrid: Siglo XXI Editores.
- Imaz, J. I. (2012). *Hezkuntzaren Soziologia*. Bilbo: UPV/EHU arg.
- Maccoby, E. E. eta Jaclin, C. N. (1974). The psychology of sex differences. Stanford, CA: Stanford University Press
- Mackie, M. M (1973). Arriving at Truth Definition: Case of Stereotype Inaccuracy. *Social Problems*, 20, 431-447.
- Martín, M. (2011). Diferenciación generacional y de género en la socialización. *Chasqui: Revista Latinoamericana de Comunicación*, (114-115), 170-175.
- Mischel, W. (1972). *Las diferencias sexuales en la conducta desde el punto de vista del aprendizaje social*. En Maccoby, E. (Ed.), *Desarrollo de las diferencias sexuales*. Madrid: Marova.
- Morgan, D. L. (1988). *Focus groups as qualitative research*. Sage University Paper Series in Qualitative Research Methods, 16. Beverly Hills: Sage Publications.
- Negro, M. J. (2006). Dependencia y cuidado: Implicaciones y repercusiones en la mujer cuidadora. *Acciones e investigaciones sociales*, (1), 260.
- Poal, G. (1993). *Entrar, quedarse, avanzar*. Madrid: Siglo XXI.
- Prime, J. L., Carter, N. M. eta Welbourne, T. M. (2009). Women “Take Care,” Men “Take Charge”: Managers’ Stereotypic Perceptions of Women and Men Leaders. *The Psychologist-Manager Journal*, (12), 25-49.

- Retuerto, A. (2004). Diferencias en empatía en función de las variables género y edad. *Apuntes de psicología*, 22(3), 323-339.
- Richaud de Minzi, M. C., (2008). Evaluación de la Empatía en Población Infantil Argentina. *Revista IIPSI*, 11(1), 101-115.
- Sagot, M. (1995). Socialización de género, violencia y feminicidio. *Reflexiones*, 41(1), 17-26.
- Sandin, M. P. (2003). *Investigación cualitativa en educación. Fundamentos y tradiciones*. Madrid: Mc Graw and Hill Interamericana de España SL.
- Sau, V. (1988). Reflexiones sobre la discusión teórica sobre el doble concepto sexo-genero. *II Jornadas por una educación no sexista*. Instituto de la Mujer en Zaragoza, Ejea de los Caballeros.
- Sau, V. (1989). Sexo, género, educación. Un enfoque teórico. *Cuadernos de Pedagogía*, 171, 8-12.
- Sears, A. (1975). *Desarrollo del rol genérico*. En Beach, A. (Ed.), *Sexo y conducta* (102-132 or.). Madrid: Siglo XXI.
- Singh-Manoux, A. (2000). Culture and gender issues in adolescence: evidence from studies on emotion. *Psicothema*, 12(1), 93-100.
- Sobral, J., Romero, E., Luengo, A. eta Marzoa, J. (2000). Personalidad y conducta antisocial: amplificadores individuales de los efectos contextuales. *Psicothema*, 12(4), 661-670.
- Unger, R.K. (1979). Toward a definition of sex and gender. *American Psychologist*, 11, 1085-1094.
- Unger, R. K. (1994): Los reflejos imperfectos de la realidad: La psicología construye los roles sexuales. En R.T. Hare-Mustin y J. Marecek (Dirs.): *Marcar la diferencia. Psicología y construcción de los sexos* (pp. 129-180). Barcelona: Herder.
- Vigotsky, L. S. (1987). *Historia de las funciones psíquicas superiores*. Ciudad de La Habana: Editorial Científico Técnico.
- Walker, S. y Barton, L.(Eds.) (1983). *Gender, class and education*. Nueva York: The Falmer Press.
- Ward, V. M.; Bertrand, J. T. y Brown, L. F. (1991). The comparability of focus group and survey results. *Evaluation Review*, 15(2), 266-283.
- Weber, M. (2005). *Economía y Sociedad*. Mexiko: Fondo de Cultura Económica.